

Alexander Arriola, SPRIko Zuzendari Orokorra MBAn izan dugu.

2017/05/23

Alexander Arriola, SPRIko zuzendari orokorra, MBAko ikasle eta Enpresagintza fakultateko irakasleekin egon zen SPRIko jaiotzatik gaur arteko ibilbidea esplikatzuz politika industrialari dagokionez.

Ikasleek lanean dabiltzan enpresetako kasuak berarekin kontrastatzeko aukera izan zuten, horrela argiago ulertuz SPRI eta Eusko Jaurlaritzatik martxan jarri diren lan lerroak ekoizpen sarea bultzatzeko.

Arriolak Euskadiren berezitasunak ere azpimarratu zituen, clusterrei dagokionez Europan erreferente izanez (politika industrialia hedatzeko tresna moduan), eta industria 4.0-aren inguruko ekimenak euskal enpresen eraldaketa digitala (BIND 4.O, besteak beste) lortzeko burutu direnak.

Bere parte-hartzearen bukaera aldera bideo bat aurkeztu zuen, bertan enpresen garapenerako Euskadiren potentzialtasuna agertzen da ([ikusi hemen](#)).

